

KOLDO MITXELENA KATEDRAREN III. BILTZARRA
III CONGRESO DE LA CÁTEDRA LUIS MICHELENA
3rd CONFERENCE OF THE LUIS MICHELENA CHAIR



Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui,
Joseba A. Lakarra & Céline Mounole
(arg./eds.)

eman la zabalaz



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

2013

Vitoria-Gasteiz

CIP. Biblioteca Universitaria

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Cátedra Luis Michelena. Congreso (3.º 2012. Vitoria-Gasteiz)

Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra = III Congreso de la Cátedra Luis Michelena = 3rd Conference of the Luis Michelena Chair / Ricardo Gómez ... [et al.](eds. = arg.). – Vitoria-Gasteiz: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2013. – XXII, 770 p. : il., map. ; 24 cm. – (Publicaciones de la Cátedra “Luis Michelena” = “Koldo Mitxelena” Katedraren Argitalpenak ; 5)

Textos en euskara, español e inglés.

D.L.: BI-1849-2013. – ISBN: 978-84-9860-911-0

1. Euskara (Lengua) – Congresos. 2. Michelena, Luis, 1915-1987. I. Gómez, Ricardo, ed. lit.

811.361(063)

Argitalpen hau ondoko ikerketa proiektu eta taldeen barruan sartzen da /

Esta publicación se enmarca en los siguientes proyectos y grupos de investigación /

This publication has been developed in the framework of the following research projects and groups:

- “Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada” (HLMV-LHC) (Eusko Jauriaritza, GIC. IT698-13),
- “Monumenta Linguae Vasconum (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo” (Espainiako MINECO, FFI2012-37696),
- “Onomástica aquitana e ibérica: datos y evaluación lingüística” (Espainiako MINECO, FFI2012-36069-C03-01),
- “Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara” (HiTeDi) (UPV/EHU, UFI11/14).

All rights reserved. No part of this publication may be reproduced, stored in a retrieval system, or transmitted, in any form or by any means, electronic, mechanical, photocopying, recording, or otherwise, without the prior permission of the University of the Basque Country Press.

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berori tratamendu infomatikoa ematea edota liburu ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein erataraz, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

© Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg./eds.)

© Egileak / Los autores / The authors

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

ISBN: 978-84-9860-911-0

Lege gordailua/Depósito legal: BI - 1.849-2013

***Le Dauphin* itsasontziko euskarazko gutunak (1757): lehen hurbilketa**

Xabier Lamikiz
UPV/EHU

Manuel Padilla
UPV/EHU-IKER UMR5478

Charles Videgain
UPPA-IKER UMR5478

1. Sarrera

1757ko apirilean Britainia Handiko hiru gerraontzik Atlantikoa zeharkatzen ari zen *Le Dauphin* zeritzon itsasontzia harrapatu zuten. Baionatik atera eta Louisbourgerako norabidea zeraman. Britainiarrek itsasontzian zegoen guztia bahitu zuten, gutun mordoa barne. Haietako 50 euskaraz idatzita zeuden.

Duela gutxi arte Euskal Herrian euskarazko eskutitzon berri izan ez dugun arren, hogeitertetik gora dira Kanadan ezagutzen dituztela, nahiz eta aztertu gabe jarraitzen duten. 1980ko hamarkadaren hasieran Eric Krausek (Fortress of Louisbourg National Historic Site of Canadako artxibozaina) Britainia Handiko agiritegietan Louisbourgekin lotura zuten agiriak mikrofilmatzea eskatu zuen. Agiri haien artean *Le Dauphin*-i harrapatutako gutuneria osoa zegoen. Eskutitzak erabiltzen lehena John Bosher historialari kanadarra izan zen, baina euskarazkoak alde batera utzi eta frantsesezkoak bakarrik aztertu zituen (Bosher 1987). Euskarazkoak erabili dituen bakarra Peter Moogk izan da. University of British Columbiako irakasle honek Vancouverreko Maria Urquidi euskaldunaren —ziur aski bertako euskal etxeko kidea— laguntza jaso zuen 1757ko martxoan Senpereko Martin Larralde bere iloba Saint-Martin de Duronea kapitainari idatzitako lerroak itzultzeko (Moogk 1989: 486). Hala ere, mende honetan argitaratu duen liburu batean Moogkek nonbait ahaztu egin du Duronea euskalduna zenik edota euskaraz idatzitako eskutitzak jasotzen zituenik, honakoan historialari kanadarrak Duronearen sorteria Gaskoinia zela baitio (Moogk 2001: 138-139). *Le Dauphin*-eko eskutitzak erabili dituen azken historialaria Anne Marie Lane Jonah kanadarra izan da, Parisen aurkeztutako hitzaldi batean, baina oraingoan ere frantsesezko testuak izan ditu aztergai, ez euskarazkoak (Lane Jonah 2010). Beraz, orain arte ez dira euskarazko eskutitzak aztertu.

2. Le Dauphin

Le Dauphin itsasontzi kortsarioa zen, eginbehar hori baimentzen zuen Frantziako erregeak emandako korsu agiria —frantsesez *lettre de marque* edo *lettre de course*, gerra garaian merkatariek eta bestelako enpresa-gizonek Frantziaren etsaien aurka arituz etekina lor zezaten sortua— baitzeraman Baionatik 1757ko martxoaren 31an atera zenean. Orduko gatazka Zazpi Urteko Gerra (1756-63) zen eta etsaia, ohi bezala, Britainia Handia. Hala ere, Louisbourgerako itsasbidean Martin Lermet kapitain ziburutararren asmoa ez zen korsuan aritzea, Île Royale kolonia frantsesera merkagaiak eramatea baizik, eta ondoren korsuan aritzea Britainia Handia-Ipar Amerika itsasbidea egiten zuten mota askotako ontzien aurka. Baina apirilaren 9an, itsasoan hamar egun bakarrik zeramatzean, *Le Dauphin*-ek *Rochester*, *Somerset* eta *Devonshire* gerraontzi ingelesekin egin zuen topo. Apirilaren 23an Lermet kapitainak berak atxilopean adieraziko zuenaren arabera, etsaiak askoz kanoi gehiago zituela ikusirik eta bere ofizialen adostasunarekin, ingelesei aurre ez egitea erabaki zuen. Hala, *Le Dauphin* eta bere kargamentu eta tripulazio osoa Ingalaterra hegoaldera eramán zituzten, Portsmoutheko portura.

Britainiarrek gerra garaian harrapatzen zituzten itsasontziekin zer egin erabakitzea Almirantegoko Auzitegi Gorenari (*High Court of Admiralty*) zegokion. Harrapakina etsaiarena eta gerra hasi ostean harrapatua zela frogatzen bazen, orduan itsasontzia eta haren kargamentua subasta bidez saltzen ziren, mozkina harrapatzailearen eta erregearen artean banatzen zelarik. Horregatik harrapaketan parte hartutakoek, harrapatzaile zein harrapakin izan, lekukotasuna eman behar izaten zuten auzitegian. Lekukotasunez gain, Almirantegoko epaileek harrapatutako itsasontzian aurkitutako paper eta agiriak ere aztertzen zituzten. *Le Dauphin*-en kasuan galdekatuak Lermet kapitaina eta bi ofizial izan ziren. Eta ordukoan aztertutako agiriei dagokienez, hainbat kontratu, ordainagiri, zerrenda, baimen eta halakoekin batera, *Le Dauphin*-ek Île Royalera zeramatzean 230 gutun-azal inguru aurkeztu ziren; horien barnean euskaraz idatzitako 50 eskutitz zeuden.¹

Zazpi Urteko Gerra garaiko kortsario frantses gehienak Baionan eta Dunkerquen izan ziren pleitatuak. Adibidez Baionatik 300 itsasontzi baino

¹ 1856. urtera arte agiriok *Tower of London*-en egon ziren gordeta. Urte horretan eta hurrengokoaren lehen hilabeteetan agiri gehienak dorretik atera eta *Public Record Office*-era eramán zituzten, Londreseko Chancery Lane kaleko eraikina. 1977an PROaren egoitza berriera eramán zituzten, Londres hego-mendebaldeko Kew auzora. 2003an PROak izena aldatu eta orain The National Archives moduan ezagutzen da (<http://www.nationalarchives.gov.uk/>). Gaur egun artxiboko HCA 30 eta HCA 32 sailetan gordetzen dira *Le Dauphin* bezalako itsasontziei egindako epaiketen paperak (Lamikiz 2010: 21). *Le Dauphin*-en agiri eta eskutitzak honako kutxa hauetan daude: HCA 30/264 eta HCA 32/180(1).

gehiago atera ziren gerran zehar (Dull 2005: 61).² Bake garaian arrantzan edo merkataritzan aritzen ziren marinelek eta itsasgizonek, gerra hasi bezain laster itsasontzi kortsarioetan aurkitzen zuten enplegua. Arriskutsua zen, bai, baina irabaziak ere arriskuaren parekoak ziren. Horregatik euskarazko eskutizetan korsuaren garrantzia azpimarratzen duten hainbat ohar aurkitzen dira. “[E]sta hemen berse negosiori[c] corsua eta corsua baisic”, zioen Azkaineko biztanle batek 1757ko martxoaren 22an idatzitako gutun batean.

Le Dauphin-en tripulazioa 34 gizonen osatzen zuten, gehienak Azkaine, Donibane Lohizune, Senpere, Urruña edo Ziburun jaiok zirelarik. Itsasontzia Bostonen egina izan zen 1743an eta 60 tonakoa zen. Louisbourgera zerraman kargamentua ardoz, ehunez, arropaz eta zapatez zegoen osatua. Borrokarako sei kanoi, hogeit hamar fusil eta hogeit hamar ezpata zeuzkan. Ez zen, beraz, harrapakin handiak erasotzeko modukoa. Hala ere, litekeena da Louisbourgera iritsi izan balitz, ontziari korsuan aritzeko su-arma gehiago erantsiko zizkiotela. Erabaki hori hartzeko ardura ontziaren jabeari zegokion, hau da, Louisbourgen bizi zen Jean Laborde lapurtarrari.

Laborde Bidarten jaio zen 1710eko azaroan. 1730ean bidaiatu zuen lehen aldiz Île Royalera, erregearen biltegizainaren idazkari izateko. 1745ean Frantziara itzuli zen eta hurrengo hiru urteak Rocheforten pasa zituen Île Royali zegozkion altxorzainaren kontu-liburuak antolatzen. 1748an, Austriako Ondorengotza Gerra bukatu zenean, Laborde Louisbourgera itzuli zen bere emazte eta seme-alabekin. Han biziko zen familia osoa harik eta 1758an ingelesek gotorlekua harrapatu zuten arte. Merkatarari eta ontzi-jabe izateaz gain, bizitzan zehar Labordek kargu ezberdinak bete zituen Île Royalen, besteak beste, errege-notario, Frantziar kolonietako altxorzain orokorraren agente, eta Louisbourgeko Errege-Kontseilu Gorenaren herri-salatari. Pariseko ministeritzatik jasotzen zuen diruarekin Louisbourgen zeuden soldadu, marinela, ofizial eta hornitzaileei ordaintzen zien. Hala ere badirudi Labordek —maila bereko kargua betetzen zuten beste askok bezala— erregearen dirua bere inbertsio pribatuak finantzatzeko erabiltzen zuela. Hala, Zazpi Urteko Gerraren hasieran, irabazi galantak egiteko aukera ikusi zuen. Helburu hori lortu asmoz Frantziako zenbait merkatarari ospetsuren laguntzaz baliatu zen. Bordelen Dominique Cabarrus zen bere kontaktu nagusia, Bresten Yves-Augustin Bersolles, eta Baionan Jean Lanne, *Le Dauphin*-en pleitatzaila. Louisbourgeko gudarostea hornitzeaz gain, Labordek bost itsasontzi prestatu zituen ingelesten aurka korsuan ari zitezten. Haietako bat zen *Le Dauphin* (Bosher 2000).³

² Britainia Handiak ere gogoz ekin zion korsuari. Zazpi Urteko Gerran 1679 itsasontzi baimendu zituen korsuan aritzeko. Gehienak Londres, Bristol eta Liverpooleko merkatarienak ziren (Starkey 1990: 165).

³ *Le Dauphin*-ez gain, ingelesek Laborderen beste bi itsasontzi kortsario harrapatu zituzten gerran zehar: *La Victoire* (100 tonakoa) eta *Le Charmant*. Halaber, 1758an jabetza ugari galdu zituen ingelesek Louisbourg harrapatu zutenean.

3. Louisbourg eta euskaldunak

Louisbourg Île Royale uhartean zegoen kokatua (egungo Cape Breton uhartean, Kanadako Eskozia Berria probintziako ipar-ekialdeko muturrean). 1713an, Espainiako Ondorengotza Gerraren bukaeran, Frantziak ingelesen esku utzi behar izan zituen ordu arte Ipar Amerikan izandako hainbat kolonia, besteak beste Akadia eta Ternua. Galera horren ondorioz, Frantziako erregeak Ipar Amerikan geratzen zitzaizkion lurretan gotorleku handi bat eraikitzea erabaki zuen, eta aukeratutako tokia Louisbourg izan zen. Historialari baten esanetan, hura izango zen Kanada frantsesarentzat “mundu atlantiarerako leihoa” (Banks 2002: 76).

Frantzia mendebaldeko kostaldetik, Arroxela edo Baiona bezalako portuetatik, 4.100 kilometroko itsasbidea osatu beharra zegoen Louisbourgera iristeko. Joateko lau eta zortzi asteko tartea behar zen; etortzeko, aldiz, hiruzpalau aste besterik ez, itsaslaster egokiagoei esker. Gero, Louisbourgetik Kanadara jarraitu nahi zuten itsasontziek, beste 900 kilometro burutu behar izaten zituzten San Laurendi golkoa zeharkatu eta Quebecera iristeko. Louisbourgera hurbiltzen ziren itsasontzien kopurua zehazteko iturri gutxi dagoen arren, kalkulatu da 1730eko hamarkadan Frantziatik, Frantziar Antilletatik, Kanadatik eta Ingalaterra Berritik urtero 130-150 itsasontzi inguru etortzen zirela Louisbourgeko kaira. Horiei, epealdi berean, Louisbourgen babesa hartzen zuten beste 400 arrantza-ontzi txikiago gaineratzen zitzaizkien (Banks 2002: 71, 75-76).

Gotorlekua 1720 eta 1740 bitartean eraiki zuten eta Ipar Amerika osoko handiena eta garestiena izan zen. Louisbourgek garrantzia irabazi ahala, Île Royale uharteko biztanle gehienak pixkanaka bertan kokatuz joan ziren, 1. taulan ikus daitekeen moduan.

1. taula

Île Royale eta Louisbourgeko populazio osoa (zibila eta militarra)

	1720	1726	1734	1737	1752
Ile Royale	2.947	3.581	3.957	4.524	5.611
Louisbourg	950	1.351	1.616	2.006	3.940
Louisbourgen ehunekoa	%32	%38	%41	%44	%70

Iturria: Johnston (2001: 38).

Hogeita hamar urteren buruan Louisbourgeko biztanleria laukoiztu egin zen, eta 1752rako, Île Royaleko populazioaren %70ak nahiago zuen bizilekua gotorlekuaren babesean izan —nahiz eta 1745ean, Austriako Ondorengotza Gerraren garaian, zenbait hilabetez ingelesen esku erori zen—.

Noski, babesaz gain, Louisbourgek jarduera ekonomiko nahikoa erakar-garria eskaintzen zien bertara hurbiltzen zirenei. Arrantza (batez ere bakailoarena), merkataritza (bakailao gazituaren esportazioa Europara zein Ameriketara, eta Europako oihal, ardo, pattar, arma, bolbora, argizari, pa-per eta bestelako inportazioa) eta gotorlekuko ehundaka soldaduen behar-rianak asetzea ziren Louisbourgtarren jarduera nagusiak (Turgeon 1982; Greer 1977: 97-101). Horregatik Louisbourgen —eta Île Royale uhartean oro har— ehundaka arrantzale izaten ziren urtean zehar, batzuk bertan bizi zirenak, baina gehienak arrantza denbora aproposena aprobetxatzera be-ren-beregi Europatik etorriak. 1752ko neguan eginiko errolda batean ikus-ten denaren arabera, momentu hartan Île Royalen negua igarotzen ari ziren 199 arrantzaletatik erdia Lapurdikoak ziren. Horrek esan nahi du arrantza-rako sasoirik hoberenean, hots, maiatzetik irailera, arrantzale euskaldunen kopurua 200-300 izatera iritsi zitekeela (Johnston 1996: 7). Hala, *pêcheurs* gehienak Frantziako bi eskualdetatik etorritakoak ziren: 1752ko errolda be-rean ageri denaren arabera, %48a Frantziako hego-mendebaldekoa zen (ia denak Baionako eta Donibane Lohizuneko elizbarrutietakoak) eta %37a Saint-Malo inguruko portuetakoa. Baziren Louisbourgen bertan bizi ziren euskaldunak ere, artisau, merkataria edo bestelako lanetan aritzen zirenak. Guztira biztanleriaren %10-15a osatzen zuten (Johnston 2001: 43-46). Ho-rietako batzuk arrantzale izandakoak ziren. Adibide nabarmenena Michel Daccarrette (c. 1690-1745) hendaiarrarena litzateke: 1704 baino lehen Ter-nuako Plasantian kokatu zen bere bi anaiarekin arrantzan aritzeko, baina 1713an, ingelesek bertako biztanle frantsesak kaleratu zituztenean, Île Ro-yalen kokatzea erabaki zuen, bertan ospedun ontzi-jabe, kortsario eta mer-katari bihurtzera iritsi zelarik. Bere negozioak burutzeko garrantzi handi-koak izan ziren Baiona eta Donibane Lohizuneko zenbait merkatarirekin mantendu zituen harreman estuak. 1745ean hil zen, ingelesek Louisbourg setiatu eta harrapatu zutenean (Le Goff 2000). Daccarretten semea, Michel, 1730ean Louisbourgen bertan jaioa, *Le Dauphin*-en frantsesezko gutune-riaren hartzaileetako bat zen.

1713an sortutako kolonia izanik, Louisbourgeko biztanle gehienak Eu-ropan jaioak ziren. Frantzia zen sorterri nagusia baina ez bakarra. Gainera, gotorlekuko kaleetan zehar entzun zitekeen hizkuntza nagusia frantsesa zen arren, bazegoen beste mintzaira batzuk entzuteko aukera ere, eta horien ar-tean euskara zen printzipala. Frantsesaz eta euskaraz aparte, bretoiera, ale-mana, gaztelania, ingelera eta bertako amerindiarren mikmakera erabiltzen ziren. Halaber, gotorlekuko soldaduen artean Frantziaren esanetara aritzen ziren hainbat herrialdetako europarrak zeudenez, litekeena da haietako ba-tzuk italieraz, portugesez edo nederlanderaz mintzatu izana. Baina, esan be-zala, frantsesaren ondoren, hizkuntza erabiliena ehundaka arrantzalek eta zenbait merkataria eta artisauk zerabilten euskara zen.

Erljioari dagokionez, Louisbourgeko biztanle gehienak katolikoak ziren, salbuespen bakarrak zenbait soldadu aleman eta suitzar zirelarik. Euskaldu-

nek apaiz euskaldunak ekartzen zituzten Lapurditik meza emateko eta aitortpenak egiteko. Hau oso garrantzitsua zen euskaldunentzat, euretako asko euskaraz soilik mintzaten baitziren. Horrez gain, epaiketaren batean parte hartzen zuen euskaldunak —eta bretoiak ere— itzultzaile baten laguntza eska zezakeen frantsesez esana itzul ziezaion (Johnston 2001: 48-49).

Louisbourgi Zazpi Urteko Gerrak ekarriko zion azkenik hondamendia. Zazpi astez setiatua egon ondoren, gotorlekua ingelesten esku erori zen 1758ko uztailean. Frantziarentzat hain toki estrategikoa izanik, eta seguruenen berriro haren esku eror zedin beldurrez, ingelesak Louisbourgeko gotorlekua guztiz suntsitzea erabaki zuten. Soldadu frantsesak Ingalaterrara bidali zituzten gerra-presoa bezala, eta biztanle zibilak aldiz Frantziara (Moogk 2001: 107-108). Azkenik gerran ingelesak atera ziren garaile eta Louisbourgen ez zen berriro komunitate euskaldunik ezarriko.

4. *Le Dauphin*-eko euskarazko gutunen aurkikuntzaren garrantziaz

Le Dauphin itsasontziko dokumentuek abantaila handi bat dute: 1757ko lapurteraren hizkuntza egoeraren lekuko fidelak dira. Gutunak, konkretuki, Lapurdiko dozena bat barietate ordezkatzan dute. Xede komunikatiboa duten idazki pribatuak izateagatik —eta are gehiago jende apalak eginak izanik—, *Le Dauphin*-eko gutunak ezagutzen dugun beste zein-nahi testuk baino modu fidagarriagoan islatzen dute XVIII. mendearen erdiko lapurtera. Haien izaeragatik, ego-dokumentuek —eta bereziki eskutitz pribatuek— badute berezitasun bat lekukotasun gisa:

They are special, firstly, because they are as close to speech as non-fictional historical texts can possibly be and therefore cast light on the history of natural language. Secondly, they can fill ‘black spaces’ left by traditional historical linguistics’ teleological perspective of language histories and its focus on literary texts and formal texts from higher registers. Moreover, they can constitute the basis of a ‘language history from below’ in its own right (Elspaß 2012a: 156).

Izan ere, hizkuntzen historia tradizionalak barietate estandarrei edo haie-taraino heltzeko gailendu direnei lehentasuna eman ohi badiete, lan berrienak hizkuntza aldaketaren berri argiago ematen ahalegindu dira, gutxiago ezagutzen ziren barietateak deskribatzeari ekinez (Dossena & Del Lungo Camiciotti 2012: 6). Irizpide sozio-demografikoetara bihurtuz, hizkuntza historiografia tradizionala mugatu izan da ez bakarrik testu inprimatueta, baina gizartearen goi mailako idazleek egin dituztenetara ere. Maila praktikoa zilegi izan daiteke: batetik, denbora luzez soilik eliteko kideek idazten zuten; bestetik, idazten hasi zirenetik, behe klaseetakoek gutiago ekoitzi dute goi klaseetakoek baino (Elspaß 2012a: 159).

Beraz, *Le Dauphin*-eko gutun bilduma lehen mailako datu iturria izanen da lapurteraren historiaren egiteko tenorean, bai eta haratago ere. Halako dokumentu pribatuak hizkuntzaren historiaren hutsune eta lauso-guneen argitzeko giltzarriak gerta daitezke (Van der Wal, Rutten & Simons 2012). Ikuspuntu soziolinguistiko batetik, gutuneria honek argia eman diezaieke garaiko Iparraldeko euskal herrialdeetako alfabetatze prozesuei: beste, irakurmena eta idazmenaren irakaspena, euskararen gramatika kodetze maila, eta fenomeno hauek Lapurdiko gizartean zuten banaketa aztertze bide ematen digu. Alderdi literariotik, *Le Dauphin*-eko dokumentazioa intimitatearen eta egunerokotasunaren adierazpeneko ezaupide ezin egokiago da. Besteak beste, diskurtsoaren antolakuntza, pragmatika edo estilistikaren gaineko informazioa eskaintzen zaigu. Bestalde, interes historikoa ere ukaezina da.

5. *Le Dauphin*-eko gutuneria euskararen corpus historikoan

Jakina, *Le Dauphin* itsasontziko gutunak ez dira bakarrak euskararen historian. XV. mendetik XVIII.era artio baditugu natura diferentetako esku-titzak, hainbat euskalkitan. Exhaustibo izan gabe, hona hemen zerrenda bat:

- Nafarroako zerga administrazioaren gutun elebidunak (1415).
- Joan Zumarragakoaren gutuna (1537).
- Araozek Inazio Loiolakoari (1545-1546).
- Bertrand Etxauzen gutuna (1584).
- Simancaseko gutunak (~1598).
- Erronkari eta Zuberoaren arteko gutuneria ofiziala (1616-1617).
- Azpeitiko gutuneria (1622).
- M. Seinich-en gutuntxoak (1626).
- Domingo Lardizabalen gutuna (1655).
- Jean Peruskiren gutunak (1664).
- Urruña eta Hondarribia arteko korrespondentzia (1680).
- J. Elizalderen gutuneria (1693 eta 1699).
- Sara eta Baztan arteko hainbat gutun ofizial (1769-1799).
- Donibane-Lohizune eta Bera arteko korrespondentzia (1788).

Erran bezala, *Le Dauphin*-ekoa ez da euskaraz dugun gutuneria bakarra, baina haren izaera eta tamainari erreparatuz gero, ez dugu, euskararen corpus osoan, honi konpara lekiokkeen deusik. Goiko zerrendari so egitea aski da ohartzeko gutungile gehienak handikiak izan direla (Elizaren kargudunak eta zerbitzari publikoak, nagusiki). Izaera pribatua duten dokumentuen artean, halaber, inon ez da 50 eskutitzeko bildumarik, ez eta gutxiagokorik ere. Garaiaz, jatorriaz eta izaeraz, hurbilenak Jean Perusquiren gutunak li-

rateke (Sarasola 1983: 143-145), egile bakarreko bildumatxoa dela ahantzi gabe.

Le Dauphin-eko testuek mikro-corpus bat osatzen dute, euskalki baten hizkuntza egoera bere dozena bat barietatetan lekukotzeko arras baliagarria. Zifratan, badugu berrogeita hamar gutun eta berrogeita hamar esku, erlazioa unibokoa ez izanik; orotara, kasik 11.000 hitz.⁴

2. taula

Gutunen jatorria

Jatorria	Gutun kopurua
Sara	9
Getaria	8
Donibane-Lohitzune	6
Ziburu	5
Senpere	5
Hendaia	4
Azkaine	3
Urruña	2
Bidarte	2
Ahetze	2
Baiona	1
Jatorri ezezaguna	3
Orotara	50

6. Igorleak eta gaiak

Errana dugu, igorle gehientsuenak alfabetatuak ziren; soilik bizpahiru dokumentu diktatuak izan dira. Ia beti populu xumeko kideak ditugu: funtsean, Louisbourgen zeuden marinelen familiak eta adiskideak. Gutungileak, beraz, beren desir, emozio eta izuak adierazten dituzten langile jendeak dira. Halako jende apala euskaraz izkiriatzeko gai izate hutsak Oyharçabalen tesiak (2001) bermatzen ditu: xvii. eta xviii. mendeetan, Akitaniako euskal herrietan bazen euskarazko alfabetatze sistema bat, frantsesa hedatu ahala

⁴ Egiazki, hizkuntza *handietan* halako kopuruek eskasegi iduri lukete. Nazioartean gehien aipatzen diren proiektuetako batek, *Corpora of Early English Correspondence* delakoak (CEEC), 5.961 eskutitz biltzen du [<http://www.helsinki.fi/varieng/domains/CEEC.html>]. Kontraste are biziago da berrikitan aurkitu diren nederlandarazko 38.000 gutunei konparatuz (Van der Wal, Rutten & Simons 2012). Aldiz, finlandiar emigranteen gutuneria aztertzeko baliatu den corpusa 45 eskutitzekoa da (Laitinen & Nordlund 2012), hots, *Le Dauphin*-eko bildumaren neurrikoa.

gizartearen maila apalagoetara mugatuz joan zena. Euskarazko oinarrizko formakuntza hura, Belapeirek deitu *Ororen eskoletan (Petites Ecoles)* gauzatua, Eliza Katolikoari estuki lotua zen, xede kateketikoa nagusi izanik. Xumea eta oinarrizkoa izanik ere, halako euskarazko eskolatzek kontraste bizia sortzen du Hegoaldeko egoerarekiko.

Bilduma honek nolabaiteko bariazio diastratikoa erakusten du: igorle bakan batzuek beren mezua diktatu behar izan dute; beste batek, kontatzeko duen guztiaren adierazteko gauza izan arren, idazteko trebetasunean halako gabezia aitortzen du: *Ene haur maitea, enaquinan nola eman mila saspì ehunac* [Mari Darburu, 1757. urteaz ari da]. Beste muturrean, gutungile zenbaitek euskara idatziaren erregistro gorenaren ezagutza erakusten dute, aszetika liburuaren irakurtzeko ohiturak, baliabide erretoriko eta estilistikoek edo *decorum* kaligrafikoak salatzen dutenez.

Genero parametroari doakionean, emazteen proportzio altua azpimarkatu nahi dugu: esposek, amek edo arrebek gutunaren %60a sinatzen dute. Nahiz eta ehuneko horrek, hein batean, gutunen hartzaile gehienak gizonak izateari obedi liezaiokeen, ez genezake inondik inora ere gutiets, garaiko Lapurdiko emazteen alfabetatze gradu altuaren frogantza baita, gizarte maila apaletan ere. Beste gutun bildumetan zifrak oso bestelakoak izaten dira. Konparazio batentzat, Elspaßek (2012a) XIX. mendeko herrialde germanikoetako behe klaseetako kideen gutunak aztertzeko diseinatu duen corpusean, emazteek idatziak ez dira bosten batera iristen.

3. taula

Idazleen generoa

	Emazte	Gizon	Orotara	Emazteen proportzioa
Idazle kopurua	30	19	49	% 61,2
Hitz kopurua	7.417	2.968	10.385	% 71,4

Eskutitzen edukiaz den bezainbatean, kasik dokumentu orotan irakurtzen ahal dira Louisbourgera igortzen, edo handik jasotzen diren objektuen zerrendak: kontserbak, edariak, arropak, zapatak eta antzekoak. Afera ekonomikoek ere halako lehentasuna izaten dute, zorren kitatzea edo kanbio-letrak (*letra chanjiac*) arras ohikoak izanik. Lapurdin utzi den negozio baten kontu errendatze zehatza aurkitzea ere posible da, edo zeharkako intentzio batekin aipatzen den etxeko egoera, ondoko pasartean bezala:

Erranen darotçut çure ontassuna guibelat hari della, çure ama andrea gai çan gabes; eta asqueneco sasoina galdu du, harrias porrocaturic. Hortic jujatuco duçu çure ahalas lagundu behar duçulla çure ama andrea, baldin nahi baduçu çure ontasuna conserbatua çan dadin, jauna ene iloba [Martin Larralde, Sieur de Bastidaguerre. Senpere, 1757ko martxoaren 16a].

Zazpi Urteko Gerla pizturik, orduko egoera nahasiari buruzko aipamenak kasik gutun guztietan atzematzen dira:

Hemen ez da guerla hotsic baicin, baitugu herrico soldadoac Bayonan, eta marinelak cortsuan dabilza eta cerbait eguiten dute, eta bertce cenbait Erregueren cerbitzuan dire [Marittipo de Subiet. Azkaine, 1757ko martxoaren 16a].

Kasu gehienetan igorleak hartzailea Lapurdirat lehenbailehen itzultzeko desira adierazten du, zuhurrenek egoera kalmatu arte pazientzia eskatzen badute ere:

Badaquiçu orobat ume batec badubela obligacionea buraso baten obediteco, beras hortaracots othoits eguiten daroçut neure ahal gucias guerla hunec dirabeino hor egoteas, eta guero, baquea eguiten den pontutic, eçcherat erretiratceas; horra cer othoits dudan çuri eguiteco, eta desiratcen nuque entçuna banints ene othoisean [Maria Dihitx. Senpere, 1757ko martxoaren 1a].

Igorleek maiz kontatzen dituzte beren penak eta estualdiak. Ondoko pasartean alargutsa batek adiskide bati izkiriartzen dio:

Chagriñac eta persequçioneac içatu tut famillarecin, non hauçitan hari bainais. Egia da presentean aphur bat osasuna piçca bat badudala: suçhar langitac çitatu nau; ene edaria da tiçana, arno batere gabe [Cathalin Marie Berrogain, Baiona, 1757ko martxoaren 15a].

Azkenik, ez da falta gertakizun trukulentoen kontakizunik:

Segur da aditu içan tucula hemengo berri tristiciac: ehaile gaisçoa preso harturic Jondone Laurendy egunian, 1755co urthean, Parisat eramadute, Sabat dorreco çena norbaitec hilçea dela medio, eta by hilabete badu jendec daraçatela bidean heldu dela libro bere etcherat, baignan oraino esta agueri gaisçoa, eta Ostaleriaco premua urthe berian Jondoni Jauni inguruan presso harturic Toulonnen da condenaturic galleretarat seculacots, adisquideac ongui mellaturic ez urcatçeco. (...) Eta itxasoan beçala leihorrean ere fortunac arribatçen dire: Betrieneco jaun gaisçoa malobran hari dela lur peça bat gainera eroriric lehertu çan da joan den udan, eta oren baten buruco hil confesaturic [David Borrotra. Ahetze, 1757ko martxoaren 24a].

7. Epistola usantzak eta formulak

XIX. mendeko erretorika eskuliburu batean irakurtzen dugunez, gutunen naturaltasunez eta dotoreziaz idazteko sekretu bakarra honexetan letzake

on doit écrire comme on parle. Mais il faut supposer qu'on parle bien, et peut-être même est-on obligé de parler un peu mieux dans une lettre que dans la conversation, parce qu'on a le temps de choisir ses idées et ses expressions, et de leur donner un tour plus agréable. Cependant rien n'y

doit paraître recherché en aucune manière. Le style simple et facile est le seul qui doit être mis en usage (Martin 1836: 105).

Begien bistakoa da garai hartan barietate estandarraren ezak gutungile bakoitzak bere herriko hizkerara jotzera bulkatzen duela; ondorioz, ia gutun bederak berezko grafia arauak ditu. Paraleloki, ongi erakusten da idazteko usantzen eta formula epistolarren erabilera. Eskutitz gehientsuenak honako egiturari jarraitzen zaizkio: i) data; ii) espresio formulistiko zenbait daukan sarrera bat; iii) mota guztitako gertakizunen kontu errendatzea; iv) itxiera guti goiti beheiti kodetua.⁵ Hona hemen formula erabilienak —guztiak dira bariatzeako sujet, eta hortaz egungo grafian proposatzen ditugu—:

Hartzen dut libertate zuri bi lerroren eskribatzeko.

Familia guzia kausitzen gara osasun perfektu batian eta desiratzen nuke zuria ere hala balitz.

Ez dut faltatu nahi izan presenteko okhasione hau zuri aditzerat eman gabe...

Ez dut zuri zer gaztiga baizik gelditzen naizela zure ama fidela.

Formula hauek, hein batean, frantsesetik sartu ziratekeen. Horrela gertatzen ohi da diglosia egoeretan, non material formulistikoa goi barietatetik bestera iragaten ahal baita (Häcker 2010). Gehiago dena, garaiko Europan zenbait formulak hizkuntzen mugak gaingitzen zituzten. Hortaz, kasik identikoak diren formula komunak identifikatu dira eirelandar, holandes, germaniar eta daniar emigranteen gutunetan (Elspaß 2012b: 53), horietako batzuk finlandieraz ere (Laitinen & Nordlund 2012: 69). *Le Dauphin*-eko bildumari doakionean, kasu batzuetan nabariak dira frantseseko moldeak (cf. *vo-tre très humble serviteur*), eta beste zenbaitetan posible da gure eskutitzetan kausitzen ditugun formula jorien frantseseko originalen atzematea:

Mon très cher père de mon âme,

Je prends la liberté de vous écrire ces deux lignes, parce que je considère qu'à la fin les pitiés d'un père sont fort grandes, comme on dit, un père l'est pour cent enfants. (...) Signé: Abraham Roblès. Bayonne, le 15 janvier 1742 (Hidioglu 2003: 111).

Iduri luke maila apaleko jendeak baliatzen ohi zituen formulak modaz kanpo gertatzea, ondoko aipuan seinatzen denez:

On doit dire dans une lettre les choses comme elles se présentent à l'esprit, sans se permettre jamais des mots impropres, des phrases triviales, des proverbes populaires. Par exemple, ces expressions : *je vous écris ces lignes* ou *ces deux lignes*. *Je prends la liberté de vous écrire pour m'informer*

⁵ Eskema hau ez da urrun Erdi Aroko *Ars Dictaminis* tratatuak Europan luzaz ezarri zuen egitura pentapartito klasikotik, eskuliburuak jasotzen zutena: *salutatio*, *captatio benevolentiae*, *narratio*, *petitio/dispositio* eta *conclusio*. Izan ere, *Le Dauphin*-eko gutun jasoenak molde horri lotzen zaizkio.

de l'état de votre santé, etc., sont non pas du style simple, mais du style bas: le ton de la bonne compagnie ne les souffre point (Martin 1836: 106).

Galdera pausatzen da: Lapurdiko jende apal haiek nondik ikasten zituzten formulak? Lehen arrapostu bat izan daiteke gutunen izkiriatzeko ohitzak *ororen eskola* haietan transmititzen zirela, oinarrizko eskolatze bateko eduki gisa. Baina nekez irudikatzen ahal dugu bertan gutunen idazteko gidaliburu-rik erabiltzen zenik, zeren eta “It is more likely that they adopted such formulae from model letters that were used in schools or which they found at home” (Elspaß 2012b: 55). Gainera, pentsa dezakegu gutunen idazteko eta irakurtzeko ekintza, etxe batzuetan, kolektiboa zela: hainbat eskutitzen egiturak horrela iradokitzen du. Suomi emigranteen gutunen kari, Laitinenek & Nordlundek (2012: 73) berriki proposatu dute erretorika formulak gehiago ikasten ziratekeela entzunez, irakurriz baino. Nolanahi ere den, *Le Dauphin* itsasontziko gutunek ikerketa lerro berri bat zabaltzen dute euskal ikasketetan.

8. Gutunen hizkuntzaz ohar bat edo beste

ANR (Agende Nationale de la Recherche) deitu instituzioaren aurrean aurkeztu dugun proiektuak laguntza erdiesten balinbadu, gutunen hizkuntza ustiatu nahi genuke zehaztasun handiz TEI bezalako anotazio sistema erabiliz. Ondoko lerroetan ohar bat edo beste egiten dugu, besterik ez.

8.1. Fonologia

Fonologiaren aldetik guziz ezagunak diren fenomenoen ondoan, beste batzuk badaude bakanagoak direnak.

8.1.1. -B *antihiatikoa*: U+A > UBA, -U+E > UBE

- (1a) penatuba gare hainits
- (1b) bainan amaso etxituba dugu
- (1c) aitu dugu cerbait baducubela
- (1d) eta cubec ere aitudugu
- (1e) othoits eguitenguerla hunec dirabeino hor egoteas

8.1.2. *Diptongoko U-ren kontsonantizazioa*

Mitxelenak goi-nafarrera bereziki aipatzen du (Mitxelena 1977: § 4.2, 90) ondoko kasuan irakurtzen dena, gure ustez ez baita maiz agertzen:

- (2) jsanen dut nic çure habraren sendaxecoa beharden gusija

8.1.3. -NEN > REN *geroaldian*

Mitxelenak ez bide du aipatzen (1977: § 15.8, 309) baina ez da guziz ezaguna XVIII. mendean, hala nola Padillak paratu duen *Kadet eta Bettiriño* obran (2011: 57-58). Han Padillak dioena hemengo gutunetan berresten da, hots $a+n$ bukatzen diren aditzetan baizik ez dela gertatzen, eta *-ite* aditzetan (*izaiten, emaiten, erraiten*):

- (3a) condenatuac izaren izaren (sic) garela
- (3b) azetatçen badarot emaren dautçu salbamendua
- (3c) Esperanca dut estucula horco amodioric jçaren guehiago eta eretiratuco carela ahalic lasterren cure familiarat
- (3d) Ceruço aitaq bethi jçaren du gure artha
- (3e) Neure gorainciaq emaren diosqucu familia guciari
- (3f) Letra hauc aribatcen badire guiconec erare dautcute [?]

8.2. Morfologia

Morfologiaz egin daitezkeen oharrak gerorako uzten ditugu. Horra hiru pertsonetilako aditz-forma batzuk: *daucute, ganaizkquitzun, dizula, daitazte, darotçut, narotçun, darotacu, gindiotcan, daroqu, baitarotçu, dausquinat* (nokakoa), *daun* [nokakoa], *digulla, dieçaçudala, esdausquitçut, dautçut, darot, darotçugu, dautçut, darosquiçudan, cinerosquidan, netçola, lauquegu, diosquatet, baitcinioen, carotan, diosqat, zeinetan*, besteak beste, hurbilagotik erkatu beharko baitira garai bereko literaturan agertzen diren formak eta gutun hauetako *darotzut/dautzut* bezalako alternantzia.

8.3. Joskera

8.3.1. Euskara batuak bere eragina eman arte, Iparraldean galduxe zen kontzesiboa adierazten duen *arren* partikula agertu da:

- (4) guelditçen nais çuc ni ahanxi arren çure aita ona

8.3.2. Xedezko perpausa txertatzeko erabiltzen den *amoreak gatic* konektagailu pleonastikoa gaur ekialdean ezagutzen da gehienik. Ohar bedi hemen *amoreac gatic* konektagailua menpeko aditzaren ondotik agertzen dela eta ez aurretik:

- (5) harcen dut libertate cuei bi lerroren eschribaceco jaquin deçaçuen amoreac gatic cuen aita eta amaren...

8.3.3. Xedezko **edin+tzat* egitura pleonastikoa:

- (6) Presenteco occasionias baliatuba isan nadintçat...

8.4. Lexikoa

Lexikoaren aldetik, 15 item baizik ez ditugu aurkezten, batzuk —ez denak— itsasoari buruzkoak direlarik.

Amarochi. Ez bagaude oker, OEHk ez dakar, eta ‘abuela’, ‘grand-mère’ adierazten du: *Çure amarochi handisqui hicustea desiratçen caituenac...*

Aitarochi. OEHk ez dakar, eta ‘abuelo’, ‘grand-père’ adierazten du: *Aitarochic mila goraiçi...*

Burjes. Gutunetan agertzen den hitzaren adiera hertsia (‘armador’, ‘armateur’) ezaguna da. Ikus Etxeberrri Ziburukoak *barkha hunen burjesa* (*apud* OEH), edo corpus honen garaikide den testua (Urkizuk argitaratua, 1987): *Adi zagun Buriyesa, modara solasean* (*apud* OEH). *Le Dauphin*-eko gutunetan: *Esdausquigou lannesec sinatu nahi nola bouryessari jgorria da arretcholarà.*

Elga. ‘Elgarrekin’, ‘biak’; lapurteraz ez omen da oso hedatua (ikus Oihenartek eta Lopezek erabiltzen dutela), baina Duhaldek badakar OEHren arabera. *Gure berriac gaztigatcen ganaizkquitcun Gabriel Lecumberricoarequin eta guero Ciburu Pattineco semearequin, bainan biac elga anglesses hartuac izandira, eta Lecumberricoa han hilda.*

Firlango. Identifikatu ez den oihal baten izena da: *Attorra churi bat, galcerdi firlango pare bat eta çapata handi pare bat guciac berriac.*

Gaztiga. Korpusean ‘abisatu’, ‘berri eman’ adierazten du bakarrik eta ez ‘punitu’ edo ‘erasiatu’: *Emastequi alargun batec gastigacendu ceina baita marja hirj berj eta quraiic har decala amac horj ethorj orduco emastegaiia billatuco diioela ganesen Berririq Estugu deusic jaquiten Badusu gastijasasu; Estucube gastigatcen nolacaiten.*

Goleta, koleta. Fr ‘goélette’, gazt. ‘goleta’: *Chanichonenen coletan bayonatiq sure osaba monsieur Laborda ren batelean eta goletan; Labordare goleta ceinetan baitire ourdaiaspibat louqainqa.*

Hagorandu. Corpusak erakusten dituen bi adibideak OEHk ematen dituen adieretan ongi sartzten dira: ‘turbado, angustiado’, ‘torturer, réduire aux abois’, “être en suspens, dans l’attente, et l’anxiété”, ‘être dans l’affliction, la souffrance, l’angoisse’ ‘défaillir, être épuisé de forces’: *Baldin ematen badiocue satisfacionea cuen aitari eta amari cuen jkustecoa ecen hurren dira hagorandu cuec beguis jcusi nahis; Cure emaste gaia bilatua duela bethi dagoela hagorandua cu jcusi nahis bethi galdeguiten dioscala cure berriac eta bethi aguintcen caituela baldin fraide eguin gogo espaducu.*

Harbi pastea ‘peita’, ‘apasta’: *Pastillaco macailluac erremetitu daitazte, bainan zure harbi pastea ez daut oraino eman Sansonec, eta manta ere ez da oraino eguin.* Aspirazioa dokumentatua da beste testu zonbaitetan. Semantikaren aldetik, *harbi* hori ez da landare bat. Gaur lapurte-

raz *arraba* arrain arraultzez egindako peita edo apasta da. Badirudi beraz kalko bat dela, frantsesez ezagutzen diren izendapenetan (*résure, rogue, rave*) azken hori, ‘rave’ hitza, arbiaren izena delako.

Korsu. Behin baino gehiagotan agertzen da corpusean, bere adiera berezian eta *Pouvreauk* jadanik aipatua da (*apud* OEH): *Erregeren cerbitcutic ethori nincen eta corsurat noa hogoieta sei pecetaquo fragata berribatian [...]; Pellobaitaco ganda Corsurat; Bera corsuban dabila baionnatic adiu ene semea; Aditu ditut çure fortunaren berri onac, nahis esconçaren partetic, eta corsuco partetic; Harcere gan behar dubela corsura.*

Langitac ‘eritasun’. Ikustekoa da hitza gaur erabiltzen den: *Sukhar langitak qitatu nauk.*

Matanta ‘izeba’. Latinez *amita*, fr. zah. ‘ante’, walonieraz *matante* forman bezala, erdal posesiboa loturik eraiki den hitza, gaur ere erabilia: *Hire matantac churunecoac cuxan sartu omen baixuben.*

Maripolisa ‘larruz egindako beroki handi’: *Cerbait aldateco galca maripolisa athora mara galcerdy eta capata eta ene partes emanen dautçu martin filisen semeac Cintal erdico baril bat nafar.* “Maripulis” lema ekartzen du OEHk Sylvain Pouvreaurengandik hasirik: *mari-pulis* (L-côte, BN ap. A; *VocBN*, Dv, H), *maripolis* (Aq (L) 330 y 931; -liz SP), *marispulis*, *maipulis* (H (L)), *maipulisa* (BN ap. A), *marapulis*, *maapulisa* (BN-baig ap. Lh), *maipolisa* (L ap. A), *maipolis*, *manpulis*, *mapulis*.

Semantikaren aldetik uste izateko da delako *maripolisa* ez zela *Pouvreauk* aipatzen duen ‘sorte de ceinture’, gerriko mota bat, baizik eta beroki larri handi bat: dokumentazioa ikertu beharko da ea marinelek garai hartan Ternoa inguruan zer ekartzen ohi zuten soinean. Etimologiaren aldetik, FEWk emandako latinezko *Pelliceus* dukegu iturria, fr. *pelisse*, gazt. *pelliza* eman baitu. Fr. *pelice* dokumentatua da XVI. mendean, biarnesez *perisse*, Baionako gask. *price*. Eratorrietan ezaguna Baionako gask. zaharreko *pericer*, ‘polisa egilea’.

Horrek ez du azaltzen hitzaren lehen elementua, hots *mari-* zer den. Hipotesi gisa, FEWek *maria* sarreran ematen duen lehenbiziko adierarekin lotura egitea proposatzen dugu: *LüttichPr. Marâie: personne qui se déguise en se cachant simplement la tête dans une mante ou un capuchon*. Sinesten balinbadugu *maripulisak* bazueta txano bat burua ere gordetzen zuena, hipotesia onartzekoa izan liteke baina berrestekoa da.

Peça ‘kanoi’: *Oray ere baditut hirur chume [untzi] chantierean hasiac eta handibat badut hasibehara ene contuco eguiteco ceinac 18 peça muntatuco.*

Xanpel. Arrantzarako hari berezi baten izena, OEHk dakarrena, zehazkiago identifikatu ez duguna: *Egorxen dausquixut çhanpelaq çançingorrinego jaunarequin.*

Onomastikaren aldetik, agertzen diren izenen artean ondokoak ematen ditugu: *ganes*, *ganachume*, *gacina*, *josepe*, *bernat*, *machume*, *hauramariac*, *haurra maria hiriart basquesse*, *Joannes*, *guanes*, *goana haurrac*, *goanaticoa*, *joanis*, *ganisona*, *joannes D'Etcheverry fils du nommé mothela*, *Piarrres*, *Betri*, *Marittipo*, *tereçha*, *gachina*, *Ganahaurra*, *Sabadina*, *Francha Ortholopitzco andre* (gaur Saran ezaguna den etxea bera ote den bilatu beharko da).

Exonomastikan, horra bederatzia adibide: *lisbourc*, *Lissiburc* [Louisbourg], *larbardor* [Labrador], *arretcholara*, *arracholacoac* [Arroxela, La Rochelle], *plemuan* [Plymouth], *lisibona* [Lisboa], *niganiche* [Niganich], *garnesein* [Guernesey].

9. Bibliografia

- Austin, F., 2004, “*Heaving this importunity*. The survival of opening formulas in letters in the eighteenth and nineteenth centuries”, *Historical Sociolinguistics and Sociohistorical Linguistics* 4. http://www.let.leidenuniv.nl/hsl_shl/heaving_this_importunity.htm
- Banks, K.J., 2002, *Chasing empire across the sea: Communications and the state in the French Atlantic, 1713-1763*, McGill Queen's University Press, Montreal.
- Bosher, J.F., 2000, “Jean Laborde”, in *Dictionary of Canadian Biography Online*, University of Toronto-Université Laval: http://www.biographi.ca/009004-119.01-e.php?&id_nbr=1992
- , 1987, *The Canada Merchants, 1713-1763*, Clarendon, Oxford.
- Chartier, R. (arg.), 1991, *La Correspondance. Les usages de la lettre au XIX^e siècle*, Fayard, Paris.
- Dossena, M. & G. Del Lungo Camiciotti (arg.), 2012, *Letter Writing in Late Modern Europe*, John Benjamins, Amsterdam.
- Dull, J.R., 2005, *The French navy and the Seven Years' War*, University of Nebraska Press, Lincoln.
- Elspaß, S., 2012a, “The Use of Private Letters and Diaries in Sociolinguistic Investigation”, in J.M. Hernández-Campoy & J.C. Conde-Silvestre, *The Handbook of Historical Sociolinguistics*, Wiley-Blackwell, Oxford, 156-169.
- , 2012b, “Between linguistic creativity and formulaic restriction. Cross-linguistic perspectives on nineteenth-century lower class writers' private letters”, in Dossena & Del Lungo Camiciotti (arg.), 45-64.
- Greer, A., 1977, *The people of New France*, University of Toronto Press, Toronto.
- Häcker, M., 2010, “Cross-Language Transfer of Formulae: The case of English letters”, in *Interdisciplinary Conference on Formulaic Language (FLaRN 4)*, Universität Paderborn. <http://kw.uni-paderborn.de/institute-einrichtungen/institut-fuer-anglistik-und-amerikanistik/konferenzen/flarn/>
- Hidiroglou, P. (arg.), 2003, *Entre héritage et devenir. La construction de la famille juive. Études offertes à Joseph Mélèze-Modrzejewski*, Publications de la Sorbonne, Paris.
- Johnston, A.J.B., 1996, *Life and religion at Louisbourg, 1713-1758*, McGill Queen's University Press, Montreal.

- , 2001, *Control and order in French colonial Louisbourg, 1713-1758*, Michigan State University Press, East Lansing.
- Laitinen, L. & T. Nordlund, 2012, “Performing identities and interaction through epistolary formulae”, in Dossena & Del Lungo Camiciotti (arg.), 65-88.
- Lamikiz, X., 2010, *Trade and Trust in the Eighteenth-Century Atlantic World: Spanish Merchants and Their Overseas Networks*, Royal Historical Society-Boydell Press, Woodbridge.
- Lane Jonah, A.M., 2010, “Lost Letters, Last Words”, French Colonial Historical Society’s Annual Meeting—ean aurkeztutako lana, Paris, 2010/06/10.
- Le Goff, T.J.A., 2000, “Michel Daccarrette”, in *Dictionary of Canadian Biography Online*, University of Toronto-Université Laval. http://www.biographi.ca/009004-119.01-e.php?&id_nbr=1291
- Martin, C., 1836, *Complément des études sur la langue française: ou rhétorique-pratique des écoles primaires précédée d’un traité de métaphysique*, Brunot Labbe, Paris.
- Mitxelena, K., 1977, *Fonética histórica vasca*, 2. arg., *ASJUren Gehigarriak* 4, Donostia.
- , 1990 [1964], *Textos Arcaicos Vascos*, *ASJUren Gehigarriak* 11, Gipuzkoako Foru Aldundia-UPV/EHU, Donostia.
- , 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Moogk, P.N., 1989, “Reluctant exiles: Emigrants from France in Canada before 1760”, *William and Mary Quarterly* 46: 3, 463-505.
- , 2001, *La Nouvelle France: The making of the French Canada, a cultural history*, Michigan State University Press, East Lansing.
- Nevalainen, T. & H. Raumolin-Brunberg, d.g., *Corpora of Early English Correspondence*. <http://www.helsinki.fi/varieng/CoRD/corpora/CEEC/index.html>
- Oyharçabal, B., 2001, “Statut et évolution des lettres basques durant les xvii^{ème} et xviii^{ème} siècles”, *Lapurdum* 6, 219-287.
- Padilla, M., 2011, *Kadet eta Bettiriño edo Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiazcuen eta sainduien arabera. xviii. mendeko eskuizkiribu anonimo baten edizio kritikoa eta azterketa*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Sarasola, I., 1990 [1983], *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, *ASJUren Gehigarriak* 11, Gipuzkoako Foru Aldundia-UPV/EHU, Donostia.
- Starkey, D.J., 1990, *British privateering enterprise in the eighteenth century*, University of Exeter Press, Exeter.
- Turgeon, L., 1982, *Pêches basques en Atlantique Nord (xvii^e - xviii^e siècles): étude d’économie maritime*, doktore tesi argitaratu gabea, Université de Bordeaux III.
- Urkizu, P., 1987, *Bertso zahar eta berri zonbaiten bilduma (1798)*, Durango.
- Van der Wal, M., G. Rutten & T. Simons, 2012, “Letters as loot. Confiscated letters filling major gaps in the history of Dutch”, in Dossena & Del Lungo Camiciotti (arg.), 139-161.
- Wartburg, W. (von), *Französisches Etymologisches Wörterbuch (FEW)*.
- Zenner, E., D. Geeraerts & D. Speelman, 2010, “Borrowing Phraseology: Explaining Variation in the Success of English Fixed Expressions in Dutch”, in *Interdisciplinary Conference on Formulaic Language (FLaRN 4)*, Universität Paderborn. <http://kw.uni-paderborn.de/institute-einrichtungen/institut-fuer-anglistik-und-amerikanistik/konferenzen/flarn/>